

MGHak ez dira globalizazioaren prozesuaren ondorengo dinamika liberalak erradikaltasunez aldatzeko proposamena, baina aurrera pausua dira txirotasunaren aurkako borrokan. Gainera, aurkeztutako Helburuak epe jakin batean –gehienak 2015. urterako- lortu behar diran azpi-helburuetan zehaztea lagungarri da aurrerapenak edo aurrerapenik ezak ebaluatzeko behintzat, eta gizarte mugimenduei zaintzeko eta jarraipena egiteko aukerea emoten deitso.

Ezin da ukatu MGHeK, liberalizazio ekonomikorako prozesuaren funtsezko elementu guztiak batzen dabean neurrian, zelanbaiteko anbiguotasun kutsua daroela. Hala ere, 2015an emaitzak ebaluatzen diranean jakingo dogu ia egitismo neoliberalak gaur egungo joerak lehengoratu daitezkan, eta txirotasun eta desbardintasun gehiago sortu ordez, miseriaren hedadura murriztu daiken eta, era berean, mozkinak eta gizarte eskubideak gizateria osoari zabaldu.



2015. urtean MGH adierazpenean aurkeztutako helburu guztiak beteko balitzaz, munduko panorama guztiz desbardina izango litzateke eta, zalantza barik, askoz hobea.

Alderantziz, gaur egungo joerak mantentzen badira, 2015. urtean, Adierazpenean ezarritako helburuak beteta egon beharko leukeenean, 2000. urtean **“Milurtekoko Adierazpena”** eragin eban antzeko zorigaitzoko mundua izango dogu.

Orain, 2005. urtean, hauxe da garrantzizkoa: konpromiso horreek ezagutu dagiguzala eta eraginkortasunez mugitu gaitzala, 2015erako txirotasunari ahalik eta borroka gehien irabazteko.

Secretariado Diocesano de Pastoral Obrera
Langile Pastoraltzako Elizbarrutiko Idazkaritza
Plaza Nueva 4,21 48005 Bilbao, tfno: 944795617
e-mail: pobrera@barria.net; // www.barria.net/pobrera

AIZU !!!



Milurtekoko Garapen Helburuak

Secretariado Diocesano de Pastoral Obrera
Langile Pastoraltzako Elizbarrutiko Idazkaritza
Bilbao., 2005ko urria AIZU!!! 7. alea.

2000. urteko irailean, Estatu eta Gobernuko 189 buruzagik **“Milurtekoko Adierazpena”** sinatu eben Nazio Batuen Batzar Nagusiaren barruan. Adierazpen horretan Milurtekoko Garapen Helburuak lez ezagutzen diran zortzi helburu jasotzen dira konpromiso erara. Bost urte igaro dira sinatu ebenetik, eta munduko herrialde guztietako gobernuetako buruek txirotasuna eta munduko desbardintasuna errotik kentzen hasteko hartu ebezan konpromisoak ez dira eztabaidetan azaltzen eta ez dagoz politikoen edo komunikabideen agendetako lehenengo orrialdeetan.



Gu, Idazkaritza honetatik, kurtsoan zehar horreek apurka-apurka zabaltzen eta komentatzen ahaleginduko gara, euron inguruan ekimen ugari sortzen ari dala eta sortuko dala ikusten dogulako et ezin garalako axolagabe geratu, txirotasunaren aurkako borroka ez dalako laguntzarako ekintza humanitarioa bakarrik eta lehenengo eta behin. Justiziazkoa da.

Orrialde honetan zortzi helburuak eta dagokiezan azpi-helburuak jasoko doguz; beste batzuetan banan-banan aztertuko doguz

helburuak, euren argilunekin, gizarte mugimenduen kanpaina zehatzekin, e.a.

MILURTEKOKO GARAPEN HELBURUAK



1. helburua: Erabateko txiro-tasuna eta gosea errotik kendu

1. azpi-helburua: 1990 eta 2015 bitartean, erdira murriztu dolarraren azpiko sarrerak dabezan pertsonen batezbestekoa.

2. azpi-helburua: 1990 eta 2015 bitartean, erdira murriztu gosea jasaten daben pertsonen batezbestekoa.

2. helburua: Lehen hezkuntza unibertsala lortu

3. azpi-helburua: 2015an, leku guztietan, neskatoek zein mutikoek lehen hezkuntzako ziklo osoa amaitzeko aukerea izan dagiela.

3. helburua: Sexuen arteko bardintasuna eta emakumezkoaren ahaldundutzea sustatu

4. azpi-helburua: sexuen arteko desbardintasunak ezeztatu lehen eta bigarren hezkuntzan hobeto 2005ean, eta hezkuntza maila guztietan beranduen jota 2015ean.

4. helburua: umeen heriotza-tasa murriztu

5. azpi-helburua: 1990 eta 2015 bitartean, bost urtetik beherako umeen heriotza-tasa bi heren murriztu.

5. helburua: amen osasuna hobetu

6. azpi-helburua: amen heriotza-tasa hiru laurden murriztu 1990 eta 2015 bitartean.

6. helburua: VIHa, hiesa, malaria eta beste gaixotasun batzuei aurre egin

7. azpi-helburua: 2015. urtean VIH/hiesaren barreatzea geldituta egotea eta murrizten hastea.

8. azpi-helburua: 2015. urtean malariaren eta beste gaixotasun larri batzuen eragina geldituta egotea eta murrizten hastea.

7. helburua: Ingurugiroaren jasangarritasuna bermatu

9. azpi-helburua: garapen jasangarriaren oinarriak politika eta egitarau nazionaletan sartu eta ingurugiroaren baliabideen galerea leheneratu.

10. azpi-helburua: 2015erako erdira murriztu ur edangarria jadesteko aukerarik ez daben pertsonen batezbestekoa.

11. azpi-helburua: 2020rako aintzat hartzeko moduko hobekuntzak lortu baztartetako auzoetan bizi diran 100 miloe lagun ingururentzat.

8. helburua: garapenerako munduko alkartea sustatu

12. azpi-helburua: bultzada barria emon arauetan oinarrituta dagoan, hauteman daitekeen eta baztartzaila ez dan merkataritza eta finantza sistema zabalari.

13. azpi-helburua: herrialde azpigaratuen (HA) beharrizan bereziei arreteta eskeini.

14. azpi-helburua: itsasbazter bako herrialdeen eta garapen bidean dagozan Estatu irlatar txikien beharrizan bereziei arreteta eskeini.

15. azpi-helburua: garapen bidean dagozan herrialden zorraren arazoari osoko tratamendua emon, nazino zein nazioarte mailan neurriak hartuz, zorra epe luzera jasangarria izan daiten.

16. azpi-helburua: garapen bidean dagozan herrialdeekazko lankidetzan, gazteei enplegu duin eta emonkorra emongo deutseen estrategiak eratu eta inplementatu.

17. azpi-helburua: konpainia farmazeutikoekin batera jardunez, funtsezko botika eskuragarriak lortzen lagundu garapen bidean dagozan herrialdeetan.

18. azpi-helburua: sektore pribatuagaz bat eginik, teknologia barrien, bereziki informazino eta komunikazinoen teknologien onuren aprobetxamendua eragin.

